



Mundu Eguneko Mezua

Antzerkiarena 2024

Jon Fosse

Norvegiako idazle eta antzerkigilea

Artea bakea da

Pertsona bakoitza bakarra da eta, hala ere, beste guztien berdina da. Kanpotik ikusten dugun itxura gainerako guztiena ez bezalakoa da, noski, hori oso ondo dago, baina gutako bakoitzaren barruan pertsona horrena bakarrik den zerbait ere badago, pertsona hori bakarrik dena. Bere espiritu edo arima dei geniezaioke. Edo, hitzekin ez etiketatzea erabaki dezakegu, eta dagoen bezala uztea besterik ez.

Baina denok desberdinak garen arren, gure antza ere badugu. Munduko leku guztietako pertsonak funtsean antzekoak dira, ez du axola zein hizkuntza hitz egiten dugun, zein larruazal kolore dugun, zein ile kolore dugun.

Hori, agian, paradoxa moduko bat da: guztiz berdinak eta aldi berean erabat desberdinak garelara. Agian pertsona bat berez paradoxikoa da gorputzaren eta espirituaren arteko loturan: existentziarik lurtarrena eta ukigarriena hartzen dugu, baita muga materialak eta lurrekoak gainditzen dituen ere.

Arteak, arte onak, bere erara eta ederki konbinatzen du guztiz bakarra dena unibertsalarekin. Desberdina dena (bitxia dena, esan liteke) unibertsaltzat ulertzeko aukera ematen digu. Hori egitean, hizkuntzen, eskualde geografikoen eta herrialdeen arteko mugak gainditzen ditu arteak. Pertsona bakoitzaren ezaugarriak ez ezik, beste zentzu batean, pertsona-talde bakoitzaren ezaugarriak ere biltzen ditu, adibidez, nazio bakoitzarenak.

Artea ez da adierazten dena berdina izatea eraginez, baizik eta, aitzitik, gurekiko desberdina dena, kanpokoa edo arrotza dena erakutsiz. Arte on orok du hori hain zuzen ere: zerbait arraroa, guztiz ulertu ezin dugun zerbait, baina nolabait ulertzen duguna. Zerbait enigmatikoa du, nola-

bait esateko. Horrek liluratu egiten gaitu eta, beraz, gure mugetatik harago bultzatzen gaitu, eta, hori egitean, arte orok bere baitan izan behar duen eta eraman behar gaituen transzendentzia sortzen du.

Ez zait bururatzen aurkakoak elkartzeko modu hoberik. Hori da munduan sarriegi ikusten ditugun indarkeriazko gatazken kontrako ikuspegia, arrotza den guztia, bakarra eta desberdina, deuseztatzeko tentazio suntsitzailea elikatzen baitute, eta, askotan, teknologiak eskura jarri dizkigun asmakizun ingizatiarrenak erabiliz. Terrorismoa dago mundu honetan.

Gerra dago; izan ere, jendeak animaliairen alde bat du, arrotza dena norberaren bizitzarako mehatxu gisa ikustera eramaten duena, horrek adierazten duen enigma liluragarria ikusi beharrean.

Hala, berezitasuna (denok ikus ditzakegun desberdintasunak) desagertu egiten da, eta atzean uzten du berdintasun kolektiboa, non desberdina den guztia desagerrarazi beharreko mehatxua baita. Kanpotik desberdintasun gisa ikusten duguna, hala nola erlijioan edo ideologia politikoan, garaitu eta suntsitu beharreko zerbait bihurtzen da.

Gerra gu guztion sakonean dagoenaren aurkako borroka da: bakarra dena. Eta artearen aurkako borroka ere bada, arte ororen esentziarik intimoenaren aurkakoa.

Arteaz hitz egiten aritu naiz, oro har, ez antzerkiaz edo dramaturgiak bereziki, baizik eta, esan dudana bezala, arte on oro, funtsean, gauza beraren inguruan dabilelako: guztiz bakarra, guztiz espezifikoa dena, hartzea eta unibertsal egitea. Partikularra eta unibertsala artez adieraztea: ez espezifikotasuna kentzea, baizik eta berezitasun hori azpimarratzea, arraroa eta ezezaguna argi eta garbi ager dadin.

Arteaz oro har hitz egin dut hemen, ez antzerkiaz edo dramaturgiak bereziki, baina hori, esan dudana bezala, arte on oro, funtsean, gauza beraren inguruan biraka dabilelako da: berezi eta berariazkoa dena hartzea unibertsal bihurtzeko. Partikularra eta unibertsala beren adierazpen artistikoaren bidez lotzea: ez arrotza dena ezabatuz, baizik eta bere berezitasuna azpimarratuz; arrotza eta ezezaguna dena argi eta garbi distira egiten utziz.

Gerra eta artea kontrakoak dira, gerra eta bakea aurkakoak diren bezala, hori bezain sinplea da. Artea bakea da.

*Traducción al Euskera por cortesía de SAREA
Koordinaziorako Idazkaritza Teknikoa*

JON FOSSE

